



HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA TOLOSA

DIAGNOSTIKO FASEA

HERRITARREN PARTE HARTZEA

2016ko ekaina

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	1
2. AURREZ AURREKO PARTE- HARTZE MEKANISMOAK	2
– 4 EGUN, 4 ARGAZKI: gaiaren araberako saioak	2
• Pertsonak	5
• Hezkuntza eta kultura	10
• Ingurumena eta lurralde antolaketa	15
• Ekonomia	20
– KALEAN JARRITAKO GUNEA (stand-a)	26
3. INTERNET BIDEZKO PARTE-HARTZE MEKANISMOAK	27
– UDALEKO WEB GUNEA	27
– POSTA ELEKTRONIKOA	28

1. AURKEZPENA

Tolosako Udalak hausnarketa estrategiko bat abian jarri du zeinak **gobernantza eredu berri bat** artikulatzea du helburu, herritarrenganako hurbiltasuna sustatu eta politika publikoen kudeaketa berritzaile eta eraginkorragoaren aldeko aurrerapausoak ematen lagunduko duena. Horretarako, **ToIOSATZEN** ekimena jarri du martxan.

Prozesu hau aurrera eramateko **hiru esparrutan** lan egitea ezinbestekotzat jo da: maila teknikoan, maila politikoan eta herritar mailan. Elkarren arteko sinergiak bilatuz eta sorkuntza partekatua bitartez, etorkizuneko Tolosaren norabidea zehaztu nahi da, erronkak definituz eta ambizio handiko xedeak finkatuz.



Abiapuntu gisa eta Tolosako errealitatea osatu nahian, herritarren iritzia eta ikuspegia ezagutzea ezinbestekotzat jo da, ekarpenak jasotzeko tresna desberdinak garatu direlarik:

- **Aurrez-aurrekoak:**

- Gaiaren araberako saioak (4)
- Klean jarritako gunea (stand-a)

- **Internet bidezkoak:**

- Tolosako udaleko web orriaren bidez : [ToIOSATZEN] Eraiki Tolosa sarean
- Posta elektronikoaren bidez


Dokumentu honetan prozesuaren herritarren parte-hartzearen eremuan egin diren ekarpenak jasotzen dira:

2. AURREZ-AURREKO PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

4 egun 4 argazki: gaiaren araberako saioak


4 egunetan zehar (ekainak 13-16) **gai desberdinak** lantzeko saioak burutu dira Topagunean. Saio hauen helburua **herritarrekin batera Tolosaren argazki partekatua osatzea** izan delarik.

Saioetan parte hartzeko deialdia irekia izan da, edozein herritarrek parte hartzeko aukera izanik. Saio berri prentsa eta web orriaren bidez egin da eta udaletik herriko talde eta erakundeei parte hartzeko gonbite gutuna bidali zaie baita ere.



PARTE HARTZAILEEN PROFILA

Modu presentzian 4 saioetan parte hartu dutenen gehiengo zabal batek (% 76) talde edo erakunde baten ordezkari gisa parte hartu duelarik. Sexuaren eta adinaren arabera honela banatu da parte hartzea:



Adinaren araberako adierazgarritasunari dagokionez, gazte eta adineko pertsonen presentzia falta nabarmentzen da.

Egun bakoitzean dagokion gaiaren inguruko datuak aurkeztu dira eta hauek oinarri hartuz, eztabaidaren abiapuntua izan diren 3-4 arlo desberdinen inguruko galderak mahai gainean jarri dira.

Jarraian egun bakoitzean landu diren gaiak eta jasotako ekarpenak azaltzen dira:







PERTSONAK

Haurrei zuzendutako eskaintza nahikoa ote denaren zalantza jarri da mahai gainean haur parkeak, zinema eta haur liburutegia baitaude soilik.

Parkeen eskaintza:

- **Haurren Hiria**, umeez ohiko parkeak gustuko ez dituztela aipatu da, nahiago dituztela elementu naturalekin lotura dutenak, adibidez gisa pic-nic musikatua egin daitekeela, ... aipatu.
- Bestalde, zenbait parkek bizitarrak ez dutela eta adinei desberdinei zuzendutako aniztasun falta dagoela aipatu da, adibidez gisa Santa Maria eliza ondoan dagoen parkea edo Ilargi taberna ondoan dagoena aipatu.

Ekipamenduak kirola eta naturarekin erlazioatuak daude, baina beste diziplina batzuekin lotutako ekipamenduak falta direla esan da, hala nola zientziak, artea, robotika, ... Klasikoetatik aldendu eta desberdintasuna eskaintzearen inguruko egokitasuna aipatu da. Hala ere, ekipamenduez gain, kalea eta ingurunea aisialdi eskaintza bezala potentziatu beharko litzatekeela esan da, kalearekin/naturarekin kontaktua sustatuz (kalea, mendia, auzoak, ...)

Arlo honetan adin tarte desberdinei zuzendutako espazio itxi edo estali baten beharra identifikatu da, udalak ez baitu gazte lokalak eskaintzarik. Tolosako kiroldegia, adibidez, igande arratsaldetan itxita dago eta ez dago frontoi estalirik erabil daitekeenik.

Aisialdi eskaintza:


Eskolaz kanpoko aktibitateak aisia kontsideratzearen inguruan eztabaidatu da. Elkarre eta erakundeek bai eskaintzen dituzte mota honetako jarduerak: musika akademiak, kirol elkarteak, eta abar. Baina hauek ez dute topatzeko, jolaserako aukera ematen. Aukera gisa, Abastos aipatu da, zeina gurasoek kudeatzen duten. Interesgarria litzateke baita ere auzoetan lokalak gurasoen esku uztea, asteburuetan gurasoek antolatutako ekimenak eskainiz.

- 13-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako eskaintza bereziki eskasa da eta autonomia dutenean joateko leku egokiak/ alternatiba falta da.
- 12-15 urte bitarteko ume/gazteentzako aukera ere eskasa da: zinemaren eskaintza nerabeei zuzendua dago gehiago, Topagunea ere badago, baina kanpotarren umeei edo problematikoei zuzendua dagoenaren estigma dauka eta horrek zenbait ume bertara ez gerturatzea dakar.
- 6-9 urte bitarteko umeei zuzenduta, Beotibar frontoiak dantzaldiak eta abar eskaintzen ziren eta berau berreskuratzearen egokitasuna aipatu da.
- 0-12 urte bitarteko umeen kopurua altua izanik, gurasoentzako zaintza zerbitzua eskaintzea aipatu da. Guraso askok ezin dute ekimenetara joan, behartu elkarre...
- 0-2 urteko ume asko ez daude eskolarizatuak eta plaza kopurua altua da: %5,50 batez bestekoa dago.

Zerbitzuetako ekimenetako **parte hartzaileen aniztasunari** dagokionez, kontzentratzeko joera dagoela aipatu da. bai jatorriari dagokionez, baita erlijioari dagokionez ere. Hau ikastetxeak aukeratzeko garaian gertatzen da baita ere. Udalak eskaintutako espazioen eskaintza aktibitateen programazioaren truke egitea


Haurren aisialdirako aukera nahikoa al daude?

Tolosako biztanle gazteak, adin tartearen arabera (2015)



Iturria: Estadistika institutu nazionala

Umeen jolaserako gune publikoak (0-14 urte arteko biztanleen %)



Iturria: Udalmap

Gazteak, 3. adina eta herritarren partaidetza

Gazteei eta 3. adinekoei entzun egin behar zaila komentatu da. Administrazioak sektore desberdinei ekimen, baliabide eta tresna desberdinak eskaini behar dizkiela uste da eta trukean, gazteek eta 3. adinekoek zerbait eman dezaketela, adibidez, 3. adinekoekin **jakinduria trukea** egin. Zentzu honetan, ideia desberdinak, **proposamenak eta ekimenak elkarbanatzeko plataforma edo espazio** bat sortzearen egokitasuna aipatu da, Udalak aholkularitza eskaini ahal izango lukeelarik eta hezkuntza formaletik bertatik (ikastetxeak) sustatu beharrekoa. Bertan landu daitezkeen gai batzuk:

- Generazio desberdinen arteko proiektuak sustatzeko erabili ahal izango litzateke.
- Enpresa munduan edo lanpostu berri batetan hasi diren gazteekin 3. adinekoek aholkulari funtzioa egin ahal izango lukete.

3. adina:

65 urtetik gorakoek paper garrantzitsua jokatu behar dutela esan da, populazioaren kopuru altuenetarikoa suposatzen baitute.

Gazteak:


- Jatorri desberdina duten gazteen papera bereziki landu behar da baita ere.
- Gazteen aldetik parte hartzea bai bermatzen da eta inplikatzeko dira propio sentitzen duten gain bat planteatuz gero.
- Egokia da gazteei konfiantza eta ardura gehiago ematea.

Ezintasunak dituzten pertsonak:

Ez da kontenplatu ezintasun fisiko, psikiko edo funtzionalak dituzten pertsonen gizartean izan dezaketen paper aktiboa, baina hau kontutan hartu beharko litzateke baita ere.

Zein paper aktibo jokatu dezakete gure gizartean bai gazteek, baita 3. adinekoek ere?


Tolosako biztanleen adin piramidea (2015)



	0-14	15-44	45-54	55-64	>=65
Gizonak	7,8	17,7	7,6	6,2	8,9
Emakumeak	7,5	17,3	7,8	6,8	12,5
Guztira	15,3	35,0	15,4	13,0	21,3

Iturria: Estadística
Instituto Nacionala

10 urte edo gehiagoko biztanleria eskolatzeko-mailaren arabera (2014)



Iturria: Eustat

Emakumeak

Jendea emakumeen egoeraz jakitun izanda, paso egiten dutela edo kontziente ez diren kasuetan egunerakoan onartu beharko ez lituzketen gauza eta egoerak onartzen dituztela aipatu da. Borroka feminista politikoki polarizatu egin dela esan da, eta feminismoa lantzen bada, ez dela eraginkorra. **Emakumeen rol-a oso markatua** dagoela eta kanpo estimuluek baldintzatzen dutela esan da:

- Bertaratutakoen ustetan emakume batzuei mantenduak izatea gustatzen zaie.
- Emakume batzuk beraiek bertan ez dute egiten duten lana baloratzen eta auto-estimua eta ahalduz falta dute.
- Ugalketa-lana ez da bistaritzen, ez da baloratzen eta ez da kontabilizatzen, ezta ere.

Parekidetasuna arloan aipatutakoak:

- Emakumeen eta gizonen arteko okupazioa berdintzen ari da eta ikasketak gero eta parekoagoak dira baita ere. Hala ere, beharrezkotzat jo da eredu hezkuntzatik aldatzea. Oraindik goi mailako ikasketetan desberdintasunak daude eta arlo hau lan munduarekin oso erlazionatua dago.
- Lan munduan gizonezkoentzako plusak daude eta oraindik lanpostu berdinen aurrean soldata desberdinak dituzte.
- Bestalde, oraindik ere kontzilio neurriak emakumeek bakarrik hartzen dituzte.
- Lan munduan sektore feminizatuak daude, hauetan gutxi gaitutako lanak izaten direlarik askotan.

Biolentziari dagokionez, ondorengo iritziak jaso dira:

- Beldurra galtzen ari da.
- Gazteen artean errespetu faltak ematen dira, ez dago aurrerapausorik. Hori dela eta, nesken jabetza garrantzitsua da.

Integrazioaren alorrean azpimarratu diren gaiak:

- Festetan aniztasuna ez da islatzen, beste herrialdeetako jendea ez da hurbiltzen eta hau emakumeen kasuan gehiago nabarmentzen da.
- Honekin lotuta, beste herrialdeetako emakumeak lanean aritzen direnean, bere senarraren menpe egiten dute kudeaketa gutxia (bilaketa, elkarrizketa,...) eta honi, kasu askotan hizkuntza ez menperatzea gehitzen zaio.

Arlo honetan eragile desberdinen inplikazioa bilatu behar dela, elkartu eta sentsibilizatzeko konplize eginez eta jendea bideratu eta kontzientziatzen lagunduz komentatu da.

Etorkizunari begira...

Aztertuko gaiak ikusita, beharrezkotzat jo da erakundeetatik herritarrei gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak ikustaraztea. Kontzientzia pertsonal a eta kolektiboa sustatzeko garrantzia handia du jabetza eskolak eta baita ere gizon eta gazteekin lan egiteak, azken hauek ez baitaude jabetzan.

Emakumeentzako gune bat hartzea garrantzitsua da baita ere, erreferente izango dena eta informazioa emateaz gain, zerbitzuak eskainiko dituen.

Bestalde eta udaletik egiten den lana ikustarazteko buletin bat ateratzearen aukera aipatu da, datuekin, portaerekin, salaketak hileko, egiten denari buruz informatzeko,...


Nola eman daiteke ikusgarritasuna jardueri, herriak emakumeen egoeraz kontzientzia har dezan?

Biztanleria aktiboaren bilakaera

URTEA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Biztan. Aktiboa	Biztan. Inaktiboak	Biztan. Aktiboa	Biztan. Inaktiboak
2006	40,0%	60%	53,2%	50%
2010	42,0%	58%	52,0%	48%
2011	43,6%	56%	51,5%	49%

Iturria: Udalmap

Okupazio-tasa: generoen arteko aldea (%)



Iturria: Udalmap

Ertzaintzak jasotako salaketak

	2009	2010	2011	2012	Guztira
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	18	15	13	12	58
Familia barruko indarkeria (bikotekide/bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	2	--	3	4	9
Sexu-askatasuna	4	1	1	3	9
Guztira	24	16	17	19	76

Iturria: Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnosikoa 2015-2020

Bazterkeria eta pobrezia

Bertako jendea

Bertakoek diru laguntzak eskatzeko lotsa dutela esan da, desinformazioa dagoela (beste zerbaitetik ateratzen dute edo saiatzeko dira, diru laguntzak eskatu baino lehen) eta azken pausu edo aukera bezala kontentatzen dutela.

Gizarte zerbitzuak

Laguntzen arloan duten etiketa aipatu da.

Diru laguntzen truke kontra prestazio bat eskatzea

Borondatezko lana,... Administrazioen arteko elkarlana sustatu eta laguntzak jasotzeko jendeari kontra prestazioa eskatzearen inguruan eztabaidatu da.

Diru laguntzak jasotzen dituzten pertsonei buruzko informazioa ematea

Gizarte zerbitzuek diru laguntzen inguruan egiten dutenaren inguruan, prestazioen kudeatzaile hutsak ez izatea eta informazioa ematearen egokitasuna komentatu da.

Banco de alimentos (Zu eta ni)

Udalak kudeaketan parte hartu behar duen edo ez zalantzan jarri da.

Bolondresak


Gazte jendeari egoera larriak daudela ikustaraztea, eskolekin kolaborazioan,... arlo guztietan transmititu, egoera desberdinen inguruko errealitateak azaltzeko.

Lanik egin nahi ez duen gizartearen sektore bat dago

Burokrazia arazoak sortzen dira laguntza ekonomikoen kudeaketan.


Krisiak zein eragin izan du gizarte bazterketa eta diru laguntzen eskaeran Tolosan?

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun kopuruaren bilakaera (biztanleen %)



Iturria: Udalmap

Gizarte larrialdiko laguntzak jasotzen dituzten bizikidetzak-unitateen kopuruaren bilakaera (biztanleen %)



Iturria: Udalmap




**HEZKUNTZA
ETA
KULTURA**

- **Zumardiko proiektuan baitan**, Zumardi handia kirola eta aisialdirako espazio erabilgarria bihurtuko dela aipatzen da.
- Ikastolak eta eskolak ekipamendu bezala har daitezkeen zalantza dago, espazio horietako batzuk irekita daude.
- Egunerokotasunean **ekipamenduak erabiltzeko zailtasun** gehiago dauzka Tolosak herri txikiek baino (adibide moduan frontoia jartzen da). Egia da funtzio hau zerkausiak bete ahal duela baina batez ere haur txikientzako.
- **Kulturaren arloan ekintzaitasuna** bultzatuko lukeen **ekipamendu baten beharra** adierazten da, non ekintzaileek euren ekimenak garatzeko espazioak eskuragarri izan dezaketeen eta, aldi berean, euren arteko sinergiak eta erlazioak bultzatu daitezkeen.
- Honen harira, **elkarrekin harremanak bultzatu eta saretzeko beharra** mahai gainean jartzen da 2012. urtean egindako ikerketa batean. Elkarte desberdinak bilduko lituzkeen gune bat sortzeko beharra ikusi zen erlazioak sustatu ahal izateko, kultur gintzaren “laborategia” edo “faktoria” bat sortzeko beharra, non kultur ekintzaitza eta kultur saretzea sustatuko liritekeen. Batzuen iritziz zaila da hau betetzea, askotan eragile bakoitza bere aldetik doalako, baina hori moldatu daitekeela komentatzen da, zailtasuna gunea sostengarria izatea eta finantziarioa lortzea dela diote.
- **Ekipamenduak** egon badaudela adierazten da, eta dagoena **hobeto aprobetxatzen** jakin behar dela, **erabilera berriak** emanez. Gainera, kultur eta kirol ekipamenduak **erabilera anitzekoak** izan daitezkeela aipatzen da, eta ez mugatuak.
- **BOX** (arte elkarte) ekipamendu kultural bat da ere bai, espazio alternatibo erakargarri bat.
- Tolosan dauden talde desberdinei zein beharrak dituzten eta zer eskaini dezaketen galdetu behar zaiela aipatzen da.
- **Ferialeko** espazioa ere hor dago eta berau bete beharko lituzkeen funtzioei buruzko galdera mahai gainean jartzen da.
- **Kultur Etxeak** ekimen asko jasotzen ditu, baina gaur egun dagoen **eskaintza beharretara egokitzea** behar du. Nahiko zaharkituta dagoela aipatzen da (30 urte dauzka gutxi gorabehera eta bertan ez da inbertsiorik egin).
- Horrez gain, Tolosan **tamaina ertaineko kultur eskaintzak bultzatzeko ekipamendu baten falta** sumatzen da (Kultur Etxea zaharkituta, Leidor handiegia eta Topic garestiegia).
- Ekipamenduren bat eskaintza hauetarako berri edo egokitzea ongi ikusten dute, ez dute berri baten beharrik ikusten.
- Kaiari dagokionez, oso mugatua, batzuen erabilpen handia. Duinagoa izan beharko luke.

Herrian dauden kultura eta kirol azpiegiturak nahikoak al dira?

Tolosako kirol azpi-egiturak



Iturria: Kiroletako Plan estrategikoa 2015-2019. Tolosako Udala

Tolosako kultura azpiegiturak




Iturria: Tolosako Udala

Kultura eskaintza eta kultur eragileen arteko harremana

- Leidoreko datuak lagin bat dira. Horretaz gain, mota ezberdinetako ekimen kulturalak antolatzen dira. BOX-ekoa adibide bezala aipatzen da, fenomeno berritzaile moduan ikusten delarik.
- Topic-eko eskaintza ere zabala da, batez ere haurrei begira.
- Zinema bonoarekin zinemarako bidea ikasi du herritarrek.
- Musika eskaintza ere zabala eta anitza dela aipatzen da.
- Prezio murriztuak daude alorreko haurrentzat, hau da, dantzakoentzat dantza ikuskizunetarako deskontuak daude, musika eskolekoentzat musika emanaldietarako...
- %80 euskaraz ematen denaren datua deigarri egiten da, agian Leidorreko lagina ere kontutan izan da. Ikusi beharko litzake beste herrietako eskaintzan berdina gertatzen ote den. Hizkuntza aniztasuna sustatu behako litzateke, gaztelera haruntza.
- Leidorren, zine forumaz gain pelikula komertzialak ere ematen dira. Zinema azpitoluekin euskaraz ere bada eta akaso hori ere kontutan hartu da %80ko datua ematerakoan. Ingelesezko eskaintza ere areagotu beharko litzatekeela aipatzen da.
- Herritar eragileak ere kultur sortzaile behar dute izan eta elkartasuna sustatu, sinergiak bultzatuz eta herrian erakutsiz. Gero eta joera handiagoa dago sortutakoa erakusteko. Urtean behin "erakusketa-leiho" bat egitea proposatzen da. Gaur egun adibidez horrelako ekimenak egiten dira: Gabon gauean abesbatzak kalera ateratzen dira, Beldur Barik ekimenaren baitan Tolosan antolatzen den Hi Haiz Hi Beldur Barik ekimena,...erakusleho diren kaleko ekintzak, bisibilitatea ematen dutenak.
- Kultur sorkuntza bultzatu behar da. Abesbatzak, dantza taldeak...badira baina dagoenaren araberako kultur eskaintzarik ba ote dagoen zalantza jartzen da. Mapeo bat egin beharko litzakeela proposatzen da. Garaiak aldatuz doaz eta batzuk gero eta gutxiago.
- Tolosa-Usataritze, bi herrien arteko elkar topaketak egiten dira. Lotura bat izan daiteke besteen esperientzien berri izan eta ikasteko.
- Nerabeentzako eskaintzarik badagoen eztabaidatzen da. Ikastetxe, Udal, Elkartearen artean hausnartu beharko litzakeela komentatzen da.


Nolakoa izan behar da Tolosako kultura eskaintza eta kultur eragileen arteko harremana?

Leidor antzokiak programatutako emanaldien bilakaera



Iturria: SAREA Euskal Antzoki sarea 2013-2014

Leidor Antzokira joan diren ikusle kopuruaren bilakaera



Iturria: SAREA Euskal Antzoki sarea 2013-2014

Kirol zerbitzuak/ eskaintza

Kirolaren IBILBIDE ezberdinak daudela aipatzen da, hiruen arteko aldea, helburuetan datza azaltzen delarik. Eztabaidaren emaitza ibilbide hauen arabera antolatzen da:

Eskola kirola:

- Partehartzea txikitzen doa. Kezkagarria da eredia indargabetzea, ez baita ikasleek kirola gutxiago egiten dutelako, kirol elkarteetan atea ireki delako adin txikietatik aurrera.
- Eskola kirola, elkarteetan egiten den kirolarekiko "indefenso" gelditzen da, bigarren kategorikoa. Duintzako beharra dagoela aipatzen da. Kirola egiteko modu hezitzailea eta baloreetan oinarrituta dagoela azpimarratuz.
- Gurasoekin lan handia egin beharra dago, baloreetan oinarritu behar duen praktika baita. Gurasoek eta ikastetxeek behar bezalako garrantzia eman beharko diote.
- Parekidetasuna betetzen da adin txikietan.
- Eredu lehiakor batetik, kirol kooperatiboaren, gune naturaletan kokatzen den kirolari lekua eman behar zaio. Bi arloak osagarriak dira, ez baztertzailak.
- Kirol praktika, aktibotasuna, egunerokotasunean, norberaren bizi ohitura bihurtu.

Kirol federatua:


- Gizonezkoak dira nagusi nahiz eta azken urteetan, Tolosan, emakumeen presentzia ugari den (nesken saskibalo taldea, futbol taldeak, arrauna, txirrindularitza). Modelo hau oraindik gaitzitu behar dela aipatzen da.
- Egitura federatiboak lehia eta errendimendutik at, beste kirol praktikatara lekua egin behar dute (aisia, kompetizio parte-hartzaileak errendimenduaren helbururik gabe).
- Errendimenduzko kirolek sortzen diren goi mailako kirolariak erreferente eta eredu dira, gaztetxoek kirolaldeko grina pizteko. Eredua alda daitezke, beste kirol eta eredu batzuk ikusarazi beharko liratekeelarik (kirol osasuntsua, plazerrez egiten dena, gozamina, naturan sinbiosiarekin egiten dena...)
- Futbolaren nagusitasuna komentatu da, nahiz eta Tolosan kirol praktika oso anitza den.

Guztontzako kirola:


- Kirol instalazioetan eskaintzen diren zuzendutako jardueretan (ikastaroak) % 90 emakumeek parte hartzen dute. Aldiz, kirol elkarteek antolatzen dituzten kirol txapelketak, probak, (lehiakortasuna tarte) gizonen esparrua dira, nahiz eta emakumeen presentzia handitzen ari den.
 - "Volei-playa" salbuespen bat dela aipatzen da, txapelketak mistoak baitira.
 - Kirolaren sozializazioak, "elite" klasea puztu du eta horren eredu dira hainbat jardueren, proben, txapelketen exigentzia maila. Maila txikiko kirol probak desagertzeko arriskuan egon daitezkeelarik.
- Auto-kompetizioa (nor bere buruaren kontra) lasterkeretan, mendi probatan, txirrindularitza... "markak hautsi".
- Hausnarketa integrala egin beharko litzateke. Espazioak emakumeentzako (kanta, dantza, jarduera fisiko zuzenduak...) Besteak gizonenak: kirol lehiakorra,
- Kirola ere, gizartean kokatzeko modu bat dela adierazten da, espresio bat dela aipatuz.
 - Mugi Tolosa proiektua ere aipatzen da, zeinak adineko gizon-emakumeen bizi kalitatea eta bizi aktiboa bultzatzen duen.

Nolako kirol eredia bultzatu behar dugu?


Eskola-kiroleko parte-hartzea



Kirol federatuko parte-hartzea




Herritarrei zuzendutako kirol ekintzetako parte-hartzea



- **Irakaskuntzan** euskara landu behar dela aipatzen da hainbat galdera mahai gainean jarri:
 - Nola lortu aldeko inertiak, gela-pasiloak-patioa-gelaz kanpo?
 - Etorkinen integrazioa, nola txertatu?
 - Eskolaz kanpoko erabilera nola sustatu?
- Hizketa gai informala gaztelaniaz izaten da askotan. Ekintza komunikatiboaren nolakotasunak hizkuntzaren erabilera baldintzatzen dute: matematikak euskaraz, gai librean gaztelera. Komunikazio informaletako harremanak euskaraz izatea lortzeko erronka dagoela aipatzen da.
- Bestalde, kale-neurketek gazteek gehienbat euskaraz egiten dutela diote. Haurrek %66,5 eta gazteek %62. Datu onak direla aipatzen da, udalerriaren indar-gune bat, baina hobetze-marjina ere badago.
- Euskararen erabilera hori ez jaistea helduen erantzukizuna dela esaten da, esparru ezberdinetan: lan munduan, aisialdian, kirolean, zerbitzuetan... ulertzen ez dutenen eskubideak beti errespetatuz, baina ahalegina eskatuz, erabilera ez jaisteko. Helduak eredu izan behar dugu erabilera.
- Hizkuntza zerbitzuekin, kalitatearekin, tradizioarekin...lotu beharko litzatekeela aipatzen da, "marka" bezala garatuz.
- Eredu bultzatzaile baten beharra aipatzen da: non dago indarra besteei eragiteko? hemen egiten ez bada non egingo da?
- Lan munduan, lanbide heziketan, praktikak euskaraz egitea zaila dela esaten da.
- Aberatsa da etorkinak euskaraz entzutea baina etorkin berriak euskarara hurbiltzea askotan zaila suertatzen da (dendak, kartelak...gaztelera izaten dira). Hau errazteko bertakook ere badugu zer egin (non elkartu, nola eman azalpenak...).
- Beharrik ez da sentitzen, ez da sentiarazten
- Euskara balorean jartzeko beharra aipatzen da. Ikastaro motak gutxienekora iristeko, zerbitzuetan
- Euskal produktu gutxi daudela aipatzen da, horretarako euskarazko liburuen maileguaren eredia jartzen delarik.


Zeintzuk dira euskararen erabilera sustatzeko erronkak?

Biztanleek etxean erabiltzen duten hizkuntza (2011)




Iturria: Eustat

>=2 urteko biztanleen euskara-maila (2011)



Iturria: Eustat

Hizkuntzen kale-erabilera (2011)





Lurralde antolaketa


Eman diren datuetan zalantzak sortu dira: Egoera txarrean dauden etheen % oso altua da, %30. Zein etxebizitza mota daude sartuta bertan, baserriak sartuta daude? Kontutan izan behar da biztanleriaren bilakaera, gaur egungo ohiturekin biztanleria ez da askoz gehiago haziko, beraz, orokorrean hormigonatuta dagoena birgaitu egin behar dela ondorioztatu da eta ez gehiago zabaldu. Etxebizitzak birgaitzeak diru gehiago ematen du obra berriak egitea baino, ekonomikoki herria hobetuz, baina hori ez da kontutan izaten eta ez da aprobetxatzen. Gainera aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak birgaitze lanetarako ematen zituen diru-laguntzak gutxitu egin direla, nahiz eta udalerrarenak mantentzen diren (%25).






Herrigunean eraikitzekotan, kontutan izan behar da eraikin mota, tamaina, dentsitatea... Tolosarekin bat datorren etxebizitza edo auzoa eraiki behar da, identitate mantenduz (ez bost solairuko etxebizitzak) eta iragazkortasuna bermatuz.

Landa eremuari dagokionez:

- Bedaio eta Urkizu auzoak hiri lurzoru moduan daude klasifikatuta eta ez landa eremu moduan, beraz, Udalak zaila dauka landa eremuko diru laguntzarik lortzea auzo hauen sustapenerako. Auzotarrek zalantzan jartzen dute aukerarik ba ote dagoen landa eremuan bizitzeko, udalak hori sustatzen ote duen (auzotar asko ilegalki daude bertan bizitzen).
- Eztabaidatu egiten da baita ere landa eremuko auzoak izan behar duten erreduez. Gaur egun baserri gutxi dago eta dauden eraikinak etxebizitzak dira, ez baserriak. Baserriak berreskuratzeko lana egin behar da.
- Zerbitzuek gune hauetara iristea zaila izaten da. Landa eremuko biztanleak nahita nahiez autoa behar du Tolosara joateko (ikastetxera, erosketak egitera...) baina herrigunean ere aparkatzeko zailtasunak izaten dituzte, herriguneko biztanleek erraztasun batzuk daukate landa eremukoak ez daukatenak.
- ZER IRTENBIDE EMANGO ZAIE LANDA EREMUAN BIZI DIREN BIZTANLEEI?

Nola garatu behar da Tolosako hiri eremua ?



- | | |
|--|---|
|  Eooitza lurzoria |  Espazio libreak |
|  Jarduera ekonomikoetarako lurzoria |  Uholde arriskuko guneak |
|  Ekipamendu komunitariaren lurzoria | |

Herria errekarara begira jartzearekin bat datoz. Erreka gero eta garbiago dago eta horren adierazle da bertan agertzen ari diren hainbat animalia espezie katalogatu: Txirritxo txikia (Chorlitejo chico) (*Charadrius dubius*), Apoarmatu korrontezalearen (Galapago leproso) (*Mauremys leprosa*) eta Enara hegazkina (Avion Zapador) (*Riparia riparia*). Espezie hauek presa hidraulikotik arrantzatu egiten baita, eta Txirritxo txikia kumatzen dagoen momentuan ez arrantzatzea eskatu zaie. Zalantzak sortzen ditu errekararen beste erabilera batzuek, adibidez, piraguismoak, turismoak... nola eragin dezakeen animalia hauetan. Espezie horiez gain, gero eta hegazti eta arrain fauna gehiago ikusten dira errekan Errekaren erabilera denboran eta zonetan mugatu beharko lirateke, ez da erabilera masiborik egin behar. Eremurik sensibleana presatik Larramendirakoa dela azpimarratzen da. Zumardi txiki, gaur egun aparkalekua dena, pertsonentzako berreskuratzea proposatzen da, lorategi/berdegune moduan.


Tolosarrok ibaiarekin dugun erlazioa noruntz bideratu behar dugu?

Erreka gero eta garbiago dago eta horren adierazle da bertan agertzen ari diren hainbat animalia espezie katalogatu: Txirritxo txikia (Chorlitejo chico) (*Charadrius dubius*), Apoarmatu korrontezalearen (Galapago leproso) (*Mauremys leprosa*) eta Enara hegazkina (Avion Zapador) (*Riparia riparia*). Espezie hauek presa hidraulikotik Larramendi aldera agertu dira.

Udalak **Uzturren** egindako ekimena oso ongi iruditu zaie.


Elosegi parkearen obrak bukatzerakoan ikusiko da honen erabilera nolakoa izan behar duen, biodibertsitatea mantentzeko transizio-eremu egokia izan daitekeelarik.

Udalerriko eremuren bat garrantzitsua edo interesgarria izan daitekeela uste al duzu? Zer egingo dugu eremu hauen egoera hobetzeko?



- Babes bereziko landa-zona
- Basogintzako landa-zona
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako eta landazabaleko landa -zona

NEKAZARITZAN MODU EKOLOGIKOAN LANDUTAKO LURRAREN EHUNEKOA



Energia eta klima aldaketa

Bidegorriak erabili beharrean, askotan espaloiak erabiltzen dira.

30 eremuak ez du bete bete beharreko helburua, jendea ez da seguru sentitzen 30 guneetan.

Garraio publikoan asko hobetu da azken urteetan eta herrigunean ongi dagoela uste dute. Hala ere, landa eremurako zuzenduta dagoen garraio publiko zerbitzuak ez du biztanle batzuen beharrak guztiz asebetetzen eta nahitaezkoa dute autoaren erabilera. Gainera aipatzekoa da, aparkalekuen aldaketarekin herrigunean bizi diren herritarrek abantailak badauzkatela, baina tolosako beste auzoetatik (batez ere landa auzoetatik) datozenek zail dute aparkatzeko.

Aipatzen da baita ere Tolosa Tolosaldeako herri burua dela, eta zerbitzu herria dela. Inguruko herritarrek autoa asko erabiltzen dute Tolosara etortzeko.

Tolosak mugitzeko modu iraunkorrek (oinez, bizikleta, garraio publikoa) erabiltzeko aukera ematen digu?

Sistema aldatzen ez den bitartean zaila da erabat eraginkorrak izatea.


Udalak eredugarri izan behar du herritarrentzako. Goiener, Som Energia bezalako kooperatibetan udalak altan eman beharko luke.

Kontsumitzen ez den energia dela garbiena ere aipatzen da. Horrekin lotuta esaten da, etxe tresnak, luminariak... hondatzen direnean aldatu behar direla, ez lehenago.

Eraikinen, etxebizitzien, udal eraikinen birgaitzean irizpide energetikoak erabili behar direla, eta horiek bultzatu behar direla aipatzen da.


Energia kontsumoa murrizpenean bide ona jarraitzen ari garela uste al duzu?

Berotegi efektu gasen emisioak sektoreen arabera (2013)



Iturria: Tolosako Udala (2013)

Elektrizitate eta gas naturalaren kontsumo bilakaera (MW/urte)



Iturria: Tolosako Udala (2014)

Hondakinak eta kontsumoa


Festetan, baina baita asteburuetan ere, plastikozko edalontzien erabilera gehiegizkoa dela uste da, beirazko edalontzirik ia ez da erabiltzen.
Boteloian eta goxoki dendatan hondakin asko sortzen da
Saltoki handietan lan handia dago egiteko

Zeintzuk dira hondakin gehiago sortzen dituzten kontsumo ohiturak?

Bertaratutakoen ustetan sistema lehen aldiz aldatu zenean herritarren sentsibilizazio eta kontzientziarioa asko handitu zen, eta horregatik orain mantendu egiten da gaika biltzen denaren portzentaia. Hala ere, pertzepzioa da sailkatzen denaren kalitatea hobetu daitekeela. Ez da ulertzen errefusaren zaborrontzia lehen baino handiagoa izatea.
Generazio berriei eman zaien bultzada hondakinaren gaiaren kontzientziarioan positibotzat baloratzen da


Hondakinak ondo bereizten direla uste al duzue? Horrela ez bada, zergatik?

Hiri hondakinaren sorreraren indizearen eboluzioa



Iturria: Tolosako Udala (2016)

Etxeko hondakinaren banaketa



Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea (2016)



EKONOMIA

Garapen ekonomikoa 1

Merkataritza:

Sektore indartsua dela aipatu da, Tolosako ezaugarria/ikurra. Erronkak bi alderdi ditu: maila mantentzea eta kanpoko jendea erakartzea haien erosketak Tolosan egin ditzaten. Zerbitzuak deslokalizatzen/frankiziatzen ote direnaren inguruko galdera jarri da mahai gainean. Ondorioak merkataritza-ehunaren ahultzea eta balio erantsia kanpora joatea direlarik. Zerbitzuen sektoreak eta Industriak duten pisuaren inguruan, establezimendu kopuruaren ordeztamaina kontuan hartzen bada, Industriak zerbitzuetako enpresek baino langile kopuru handiagoa biltzen duela ikusi da.

Industria:


Tolosan Zerbitzuen sektoreak garrantzi handia badu ere, bertaratutakoek ezin dute imajinatu Industriarik gabeko Tolosa, are gehiago argazkia Tolosalde osora zabaltzen bada; orduan Industriak garrantzia handiagoa duelarik. Aspaldian Tolosako Industriak nolakotasuna Papeleran zuela eta Gipuzkoako industria-mapan posizionatzen zuela komentatu da. Hori ez da desagertu, baina nortasun hori galdu egin dela uste dute eta Tolosako Industriak bere burua "bir-asmatu" behar duela, dagoena aprobetxatuz (Papelerarekin lotutako ezagutza guzti hori) eta eraldatuz; erreferenteak behar direla, enpresa traktorea (hitz horrekin desadostasunak badaude ere) edo, are gehiago, enpresa-sare dibertsifikatua sortuz. Parte-hartzaileen iritziz Industria da beste sektoreak bultzatuko dituen, zerbitzuek haien zerbitzu/produktuak erosiko dituzten pertsonak behar baitituzte.

Nekazaritza

Tolosako ekonomia-egituran pisu txikia badu ere, Nekazaritzak hazteko aukera handiak dituela uste dute: landaren iraunkortasunarekin, turismoarekin, azokekin, elikadurarekin (errotutako produktuen sofistikazioan, gourmet produktuak) eta abarrekin lotuta. Hala ere, beste batzuen iritziz, haratago joan behar da eta Nekazaritzari buruz sektore batzuk duten irudi bukoliko horrekin apurtu behar da, eta sektore ekonomikotzat seriotasunez hartu eta indartu behar da, horretarako baliabideak jarri. Azken finean, ekonomiari ekarpen handia egin diezaiokela "sinistu" behar da. Landa-auzoetan jendeak bizitzen jarraitu ahal izateko, nekazaritzari behar den bultzada eman behar zaio ekonomikoki bideragarria izan dadin, hori baita jendeak eusten dion elementua nekazaritzan aritzeko.


Zein izango da Tolosako ekonomia bultzatuko duen elementu traktorea?

Balio erantsi gordinaren bilakaera, sektorearen arabera (%)



Iturria: Udalmap

Establezimenduen ehunekoaren bilakaera, sektoreen arabera



Iturria: Udalmap

Ekintzailetasuna

Garapen ekonomikoari ekarpen handia egiten dio ekintzailetasunak aipatu da, eta horregatik sustatu behar dela:

- Baliabideak jarriz (ekonomikoak, azpiegiturak, informazioa/aholkularitza, agian gida bat)
- Erraztasunak emanez (gehiegizko burokratizazioa)
- Laguntza emanez, hasieran ez ezik, baita enpresaren ibilbide osoan zehar ere
- Hezkuntza-curriculumean txertatuz, ekintzailetza-gaitasunak umeein eta gazteekin txikitatik landuz

Belaunaldi-aldaketa

Belaunaldi-aldaketa behar da bai Merkataritzan bai Nekazaritzan, eta batzuk premia hori beste sektore batzuetan ikusten dute baita ere: industrian, ostalaritzan,...

22-35 urte bitarteko gazteek herritik alde egitea, aukerarik ez topatzearekin lotu dute.

Belaunaldi-aldaketa ez dute arazo bezala ikusten, ondorioa gisa baizik; bideragarritasun ekonomikoaren faltaren ondorioa, hain zuzen.

Ekonomikoki bideragarriak diren aukerak eskainiko balitzaizkie, gazteak herrian geratuko liratekeela aipatu dute.

Emakumea

Zerbitzu sektorean emakumeak ari dira lanean, batik bat. Horrek hausnarketa sakona eskatzen duela esan da: zein azpisektoretan ari dira? Zein baldintzatan (lanadi-mota, kontratu-mota, soldatak,...)?

Azokak

Azoken inguruan hausnarketa egin behar da: Verdura plaza hiltzorian dago udalak azken urteetan lore denda asko baimendu baititu eta horrek eragin duelako plaza horrek haren nortasuna eta garrantzia galtzea; Alde Zaharrera jendea erakartzeko aitzakia gisa erabilia izan da

Azokei buelta eman behar zaiela uste da, esperientzia gune bihurtuz.

Zein izango da Tolosako ekonomia bultzatuko duen elementu traktorea?

Krisi garaiarekin parekatzen ari garela uste da.

Langabezia tasa: Tolosan egun 2.075 pertsona daude langabezia eta 1.000 pertsona inguru oso kontratu txarrarekin. Kontutan hartu behar da Gizarte segurantzaren altan emanda egonez gero ez dela erregistratutako langabezia kontabilizatzen eta bestalde, langabezia-tasaren datuan lan egin nahi ez duten pertsonak ere kontabilizatuak egon daitezkeela.

- Sektore batzuk kroniko bilakatzen ari direla uste da eta 45-50 urte baino gehiagoko pertsonen kolektiboak nola bideratu landu behar dela.
- Perfil batzuk bete gabe geratzen direla esan da: ingeniariak, hizkuntzak, komertziala
- Bertan lan egin nahi ez duten pertsonak ere kontabilizatuak egon daitezkeela aipatu da
- Nekazaritza arloan datuak oraindik eta zailagoak direla aipatu da, lan asko beltzean egiten baita. Lehen sektorean aritzen diren emakumeek betidanik lan egin badute ere, orain arte ez direla altan ematen hasi komentatu dute.
- Bertaratutako arloan, prekaritateak agian lehen sektorearentzako aukera bat suposatu dezakeela aipatu da, lan partziala nekazaritzarekin osatua izan baitaiteke.

Bestalde, Tolosan 1009 pertsonak kobratzen dute RGI edo subsidioa. Hala ere, datu hauek gauza asko ezkututzen dituztela diote

Jende asko kanpora joaten ari da eta hori kontutan hartu behar dela aipatu da..

Lanbide heziketan jendea gero eta gehiago bertan geratzen ari denaren iritzia jaso da. Hala ere, arlo honetan oraindik neskekin aurreiritzi asko dagoela aipatu da, baita arrazarekin ere.


Komertzioan gero eta profesionalizatuagoak beharko direla eta sektore honi balio erantsia eman behar zaiola komentatu da, adibide gisa marketing digitala aipatuz.

Etorkizunari begira, ondorengo beharrak egon ahal izango direla aipatu da:

- Tailerra eta enpresa gauza bera ez direla esan da eta etorkizunean etengabeko formazioa beharko dela.
- Zein lanpostu galduko diren aztertzea.
- Formazioa eta gaitasunari dagokionez, perfil oso espezializatuak eta balio anitzekoak beharko direla uste dute, baina jarrera oso garrantzitsua izango dela.
- Diru laguntzei buelta bat eman beharko zela esan da.
- Lan profilak
- **Familia kontziliazioa** kontutan hartu behar dela komentatu da baita ere, administrazio, zaintza lana eta emakumeak egiten duen lana, prestakuntzarako ere zein denbora eskaintzen den baloratuz.

Nolakoak izango dira lan merkatuan beharko diren profilak?

16-64 urte bitarteko langabezia-tasaren bilakera



Iturria: Lanbide

>= 16 urteko biztanleria okupatua lurralde eremua eta jarduera-adarraren arabera (2011)

JARDUERA-ADARRA	LURRALDE-EREMUA		
	Tolosa	Tolosaldea	Gipuzkoa
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	0,7%	1,4%	0,9%
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	0,7%	1,4%	0,7%
Arrantza, akuikultura	0,0%	0,0%	0,2%
INDUSTRIA	27,5%	29,7%	23,6%
Ateratze-indutriak	0,1%	0,1%	0,1%
Manufaktura-industria	26,9%	29,0%	22,8%
Elektrizitatea, gasa eta ura ekoiztu eta banatzea	0,5%	0,6%	0,7%
ERAIKUNTZA	6,1%	8,0%	7,0%
ZERBITZUAK	65,7%	61,0%	68,5%
Merkatuko Zerbitzuak			
Merkataritza eta konponketa	14,5%	14,2%	15,3%
Ostalaritza	5,0%	5,7%	7,0%
Garraioa, bilketa eta komunikazioak	4,3%	4,9%	6,2%
Finantza-bitartekaritza	2,1%	1,6%	2,3%
Onbar-jarduerak eta alokairukoak; enpresa-zerbitzuak	9,7%	8,6%	11,4%
Ez-merkatuko Zerbitzuak			
Herri-administrazioa	4,4%	4,0%	4,4%
Hezkuntza	9,8%	8,2%	7,7%
Osasun- eta baldarritza-jarduerak, gizarte-zerbitzua	10,3%	8,5%	8,3%
Etxeko langileak dituzten etxebizitzak	1,5%	1,5%	1,5%
Bestelako gizarte-zerbitzuak eta norbanakoentzako zerbitzuak	4,2%	3,9%	4,3%

Iturria: Eustat

Zein turismo mota nahi da Tolosarako?

- Dentsitate baxuko turismoa sustatu nahi dela aipatu da (edo behintzat, ez masiboa), turistak erakarri behar direla, baina oreka mantenduz.
- Posizionamendua lortu behar dela esan da, turismo "selektiboa"
- Epe motzean turismoa "arazo" izan daitekeela komentatu da eta kontuz ibili behar dela hori ekiditeko (Donostian, Bartzelonan eta Europako hiri batzuetan dagoeneko turismoa "arazo" bilakatzen ari da). Honetan, asko baldintzatzen du egiten den turismo garapenak, turismo merkatuan posizionatzen zaren moduak eta nola saltzen zaren. Arlo honetan, arazoetako bat etxeen alojera izaten ari dela jarri da mahai gainean eta berau hasieratik erregulatzearen inguruan hitz egin da.
- Bultzatu behar dena kultura, gastronomia eta natura direla esan da.

Tolosan **identitateak** ematen dio merkatuan posizionatzeko aukera, diferentziatzailea dena (hau bera izan daiteke produktua).

Tolosa oraindik **ezezaguna da kanpora begira** eta gehiago saldu behar dela uste da.

Tolosan mapan kokatzeko **aktibitateak sortu behar direla** aipatu da, kirol arloan, kulturalan,... Gaur egun gauzak egiten dira, baina hauek **gehiago potentziatu** behar dira.

Udalerri mailan egiten diren **ekitaldiei oihartzuna eman** behar zaiela uste da, saltzen ikasi behar dela: kultura, gastronomia, natura,...

Esperientziak edo emozioak saldu behar dira, hau da diferentziatzen zaituena, ez soilik argazki bat ateratzeko parajeak.

Ibilbideak, paseoak,... antolatzearen beharraren inguruan hitz egin da, baina izaera kultural batekin (adibidez, zein zuhaitz dauden azaltzeaz gain, hauen erabilera azaldu, Tolosako industriarekin izan duen lotura,...)

Esanenez, turismo arloan, **Tolosaldeak (eskualdeak) garrantzi handia du** Tolosaren garapen turistikoan, aktibo turistikoak eskualdean baitaude. Gaur egungo ekintzek (Tolosaldea tour,...) ibilbidea izan dezaten baliabideak sustatu behar dira. Eskualde maila eta baita inguruko eskualdeak ere: Tolosaldea eta Goierri.

Turismoa sustatu egin behar da, edo egiten denaren ondorioa izango da?

Larunbatetako **merkatua sustatu** behar dela aipatu da baita ere: jendea erakartzen du eta kanpoko jendea ere etortzen da. Hala ere, gazte jendea erakarri behar da baita ere merkatura.

Tolosa **hiri komertziala** izatea komentatu da, honek jendea erakartzen baitu baita ere. Arlo honetan dendetara gazte jendea erakartzea erronka da baita ere, on-line motako erosketak egiteko ohitura baitute.


Nekazal etxeetarako bisitak sustatu eta antolatu daitezkeela esan da baita ere, gastronomiarekin edo naturarekin lotuta. Baina hau gauzatu ahal izateko azpiegiturak falta dira (ibilgailu handientzako edo autobusentzako egokiak diren errepideak edo "buelta" emateko aukera izatea,...), bestalde sektorearen profesionalizatzea bultzatu edo sustatu behar da (hizkuntzak, bisitarietzako harrera,...)

Turismo arloan Donostiarekin batera lan egin behar da, aukera bat baita. Donostiara joaten diren turistak erakarri behar dira, produktu turistikoak sortuz. Donostia eta Gipuzkoako sinergia aprobetxatu behar da. Eskualde mailan ostaturen okupazioa oso baxua da, nekazal turismoen kasuan ez da %30era iristen.


Urte askotarako apustua izan beharko luke, epe luzerako estrategia.

Nola sustatu Tolosak duen erakargarritasun turistikoa?


Turismo ostatuko plaza kopuruaren bilakaera (biztanleen %)



Ostalaritza establezimendu eta jatetxe kopuruaren bilakaera (biztanleen %)



Txikizkako merkataritza dentsitatearen bilakaera (biztanleen %)





2. AURREZ-AURREKO PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Kalean jarritako gunea (stand-a)

Lan saioak burutu diren bitartean, kalean (Topagune ondoan eta Zerkausian) informazioa eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko gunea jarri da.



JASOTAKO EKARPENAK

PERTSONAK

- 0-12 bitartekoen artean, nire ustetan eta kirolean adibidez, aukera handia dago. Baita dantza, antzerki edo beste motetako alorretan. Eskaintza eta ekipamenduak zabalak direla uste dut. Nire ustetan 12-16 urtekoen artean dagoen eskaintza murriztagoa eta gabezia.

KULTURA ETA HEZKUNTZA

- Umeen artean euskararen perfila ona da, denek euskara ikasten baitute Tolosako eskoletan. Adin batetik aurrera ordean erdaldundu egiten dira arlo gehienetan. Etxean euskaraz jakinez gero erabileran erabatekoa dela uste dut.

INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

- Ibaia: erabilera egokia ematen zaio. Bertan arraun taldeak lan handia egin dute. Eta duela gutxi hasi dira kanoa, piragua ... ikastaroak ematen ere beste talde batzuk.
- Ezinduei ere arraunean ibiltzeko aukera ematen zaie eta ongari deritzot.
- Energia aurrezpena eta efizientzia energetikoa eraikuntzetan bultzatu behar da
- Bizikletaren erabilera zabaltzeko aparkaleku estaliak jarri beharko ziren
- Alde zaharreko kaleak kotxeei itxi
- Hirigintza ez zabaldu. Herriak dauden pisu hutsen erabilpena bultzatu eta hazkuntza gorakoa

EKONOMIA

- Donostiara etortzen den turismo gehiena Tolosan lo egiteko dagoen aukera murrizta izan daiteke bertan ez gelditzearen arrazoietako bat . Ez dago ez hostal ezta holakorik.
- Autokarabanentzako jarri zen area ez da batere egokia bertan gaua pasatzeko.
- Beraz turista etortzen da Tolosara eguna pasatzera baina ez da bertan gelditzen

3. INTERNET BIDEZKO PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Udaleko web gunea

Udaleko web orrian **[ToIOSATZEN] Eraiki Tolosa sarean** ekimena gauzatu da. Bertan aurrez-aurreko saioetan landu diren 4 arlo nagusien inguruko ekarpenak egiteko aukera ireki da baita ere. Bertan gai bakoitzaren inguruko oinarrizko informazioa jarri da, gaiaren testuinguru gisa eta hauen inguruko iritzi eta ekarpenak egiteko espazioa

JASOTAKO EKARPENAK

PERTSONAK

- Diru-kutxa publikoetara ekarpenak egin dituzten pertsonak eskubide gehiago izan beharko lituzkete diru-laguntzak jasotzeko garaian.
- Gazteek eta 3. adinekoek erabakiak hartzen diren guneetan parte hartu beharko lukete, Tolosan beraien bizitza nola hobetu ahal izango litzatekeen esanez.

INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

- San Esteban auzorako aurreikusia eta onartua dagoen garapen urbanistikoaren eredia berrikustea beharrezkoa dela aipatu da. Gaur egun duen eskala eta ereduarekin gehiago bat etorriko den hazkundera landu beharko litzateke, etxebizitza dentsitatea murriztuz eta espazio berdeak handituz

3. INTERNET BIDEZKO PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Posta elektronikoa

Zenbait herritarrek (saio presentzialetara joateko aukerarik izan ez dutenak edo hauetan parte hartu ondoren) posta elektronikoaren bidez helarazi dituzte beraien ekarpenak.

JASOTAKO EKARPENAK

INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

- Pertsona guztien orientazioa errazten duten toki eta espazioak sortzea, non inor ez den galdua sentituko eta guztiok mugikortasunean autonomoak izan gaitzkeenak. Honetarako beharrezkoa litzateke espazioak irisgarri, ulergarri eta orientatzeko errazak izan daitezen beharrezko laguntzak jartzea: labirinto efektuak ezabatu, guztientzako ulergarriak diren argibideak (sinboloak, piktogramak,...). Azken finean, **irisgarritasun kognitiboa**.
- Kotxearen erabilera handiegia da eta kotxeak kalea gehiegi okupatzen du, bai mugimenduan, baita geldirik ere eta kotxeari espazio kentzen joan beharko litzaioke.
- Bidegorriei dagokionez, arazo bat da errepide ondoan joatea, kotxeetako gasak arnastuz. Mugitzeko forma bakoitzak bere bide propioa behar izatea ez da oso egokia eta bizikleta eta oinezkoen elkarbizitza planteatu daiteke, espazio arazorik ez dagoen kasuetan behintzat.
- Kotxe hibridoak eta neurri txikiago batean gasolinakoak sustatu beharko lirarteke, dieselen aurrean, baita tamaina txikiko eta kontsumo baxuko kotxeak ere, kontzeptu horiek zergetan isla izan beharko luketelarik
- Eraikuntzen energia kontsumoa txikitzeko saiaketa egin beharko litzateke, erakunde desberdinek ematen dituzten laguntzak, informazioa eta abar, herritarrengana iritsi dadin saiatuz.
- Kontsumo arloan gertutasuna saritu beharko litzateke, komertzioak bizia ematen baitio herriari ekonomikoki motor garrantzitsua da, lanpostuak sortzen dira, eta abar eta abar. Bertan eroste ingurumen aldetik egokiagoa da baita ere, ez baita kotxerik hartu behar. Herritarrak honetaz konbentzitu behar dira.
- Ingurune naturalak babestu, zaindu eta mantendu egin behar dira, berauek balioan jarri eta erabiltzera bultzatuz.
- Tolosako alde zaharra harri bitxi bat da. Alde zaharra eta erdigunean hutsik eta birgaitzeko beharra duten etxe asko daude. Tolosak hazi baino, daukana hobeto kudeatzea izan beharko litzateke datozen urtetarako bidea.
- Natura herrian txeratu beharko litzateke eta hormigoia eta asfaltoa kendu. Haurrek berdeguneetan jolastu beharko lukete.
- Oria ibaiak, ibaia baino, kanala dirudi zenbait guneetan. Berau naturalki edo auzolanean garbitu ahal izango litzateke.

3. INTERNET BIDEZKO PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Posta elektronikoa 2

JASOTAKO EKARPENAK

HEZKUNTZA ETA KULTURA

- Ikastetxeak irekiagoak izan eta herriari begira egon beharko lukete.
- Diru publikoa jasotzen duten hiru zentroek (Samaniego/Orixe, Ikastola eta Hirukide) Udaletik tratu berdina jaso beharko lukete. Hirurek bere estiloan etorkizuneko pertsona euskaldun, eleanitz, autonomo... eta abar osatzeko daude, etorkizuneko denontzako izango den gizartean biziko direnak.
- Hiru eskolek, matrikulazio borrokaz gain, izan dezaketen elkarlan bultzatu beharko litzateke. Horretarako herrian eskola ezberdinez dauden aurre-iritziak desmontatzeko lan egin beharko litzateke.
- Hezkuntzak sortzen dituen pertsona euskaldunak euskaraz bizi daitezkeen herria osatu: kultura, zinema, kirola, zerbitzuak...
- Atzeritarrak eta beraien seme-alabak eskoletan eta eskoletatik kanpo euskanduntzeko baliabideak jarri behar dira.
- Eleaniztasuna ez da soilik ingelesa, herrian dauden beste hizkuntzei (euskara oinarri) tokia egin behar zaie.
- Ikasketa ez-formalari garrantzi gehiago eman behar zaio eskolaz kanpoko ekintzak diseinatuz , online eskaintza areagotuz , eskaintza herria eta bailarari begira - gurasoen formakuntza hemen kokatuko litzateke- eta ideia honekin : gaur egun eta geroz eta gehiago edozein leku izan daiteke aproposa ikasteko-irakasteko (ikasketa "ubicuo" gutxiengo gidaritzapen batekin.



Eskertza berezi bat

Agurtza Zubero, Aitor Errasti, Ander Auzmendi, Angel Uranga, Arantxa Estanga , Arantxa Zalakain, Arrate Iturbe, Axier Manso, Conchy Gonzalez, Cristina Larrañaga, Ekaitz Zubeltzu, Garikoitz Lekuona, Gartxot Agirre, Helena Baraibar, Ibai Luque, Ibon Badiola, Idoia Lahidalga, Igor Mujika. Iker Karrera, Imanol Zubelzu, Inma Maiz, Iñaki Cruz, Iñigo Muñoz, Irma Arnaiz, Itziar Dolado, Ivan Asenjo, Jesús Peñagarikano, Jokin Aldazabal, Jokin Ansorena, Jon Zubeldia, Joseba Antxustegietxarte, Jose Manuel Tolosa, Josune Zalakain, Jose Ramón Zalakain, Joxe Lasa, Karmele Goikoetxea, Kepa Goikoetxea, Kike Amonarriz, Kike Zinkunegi, Kristina Morales, Maite Serrano, Maria Jesus Arrigain, Maria Mendiluce, Mauro Maroties, Mertxe Amiano, Mireia Roca, Nagore Ezeiza, Nekane Izagirre, Nerea Cerededa, Oihana Hernáez, Olga Artola, Tarana Karim, Unai Andueza, Unai Olalde, Vanessa Alzate, Xabier Goenaga

**eta bestelako bideetatik zuen
ekarpenak helarazi dizkiguzuen guztioi
Tolosako egungo argazkia osatzen
lagundu diguzuelako!**

